

## OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN INGURUAN

Donostia, 1986-IX-26

Koldo Mitxelena

Hitz bitan nahi nuke, ezinbestean gehiago luzatzen banaiz ere, *Orotariko euskal hiztegia*-ren berri eman, laburki bezain zehazki.

**Zer den.** Urteak eta urteak dira batzar hauetako batean Euskaltzaindiaren hiztegiak mintzatu nintzela. Nik, eta bestek ere bai noski nere gisa, hiztegia zela bide jakin genuen Euskaltzaindia bazela. Gerra arte, izan ere, Euskaltzaindiaren berriak, labur baino laburrago, egunkarietan agertu ohi ziren hilabetero edo ia hilabetero. Eta hor ageri ohi zen beti Hiztegiarekikoa: lana aurrera zihoala, honetaz edo hartaz izan zela eztabaida, eta abar.

Hor dabil noski oraindik orduan burutu gabe utzi zen lana. Gezurra badirudi ere, *erdal-euskal* hiztegia da. Euskaltzaindiaren asmoa, beraz, erdarazko hitz polit-dotoreak antzeko euskal hitz polit-dotoreekin ematea zen eta, egia esan, hori berori zen jende euskaltzalearen gogoia. Gogo hori bizirik dagoela orain ere egingo nuke.

Gure *OEH* hau, berriz, hagitz bestelakoa da. Erdara erabiltzen du, baina hizkuntza laguntzaile bezala. Bi arrazoigatik: errazago delako hitzak itzultzea bakoitzaren zer-nolakoa azalpen luze eta aspergarriren bitartez ematea baino eta, bigarren, komeni delako erdaldunek ere hiztegiara sarre-za izatea. Halaz guztiz, euskararen ukituren bat premiazko izango dute hiztegia barren-lanean saiatu nahi badute Adibideak, eta testurik gehiena adibide hutsa da, euskaraz daude. Egileen itzulpenak bakarrik, Oihenartenak esaterako, edota jatorrizko testua euskarara iraulia izan denean.

**Testuak.** Hizkuntza bizi deino ez du sekula hiztegi oso beterik izango. Gurearen *corpus*-a ere zatika eta atalka bildua dago. Zenbat eta zaharrago, orduan eta osoago, eta besteren laguntza izan dugunean gu ere laguntza horren arabera mugitu gara: Etxepare, adibidez, osorik har daiteke, Leizarraga ez bezala. Etxepare baino lehenagokoak ahalegindu gara biltzen, erabat edo ia erabat, baita geroztik agertu diren lekukotasun bakanak ere.

Ahozkoak, Azkuek eta dakartzatenez gainera, gerok bilduak, han eta hemen, sartu ditugu. Nahi genuke hitzak noiz agertzen zaizkigun azaldu, gehitzen ala urritzen ari diren, ahaztuak ote diruditen. Horretarako, bereizkuntza zehatza egin dugu a) hiztegiak eta b) testuen artean, bi gauza esaten baitutuzte maizegi. Nagusitasuna, noski azkenekook dute.

Testuetan agertzen dena markatu nahi dugu eta baita ere agertzen ez dena. Beti batekin ari beharrean, erosoago iruditu zaigu eza ixilpean uztea. Hor azaltzen ez dena da, beraz, guk aurkitu ez duguna.

*Nolakoa izango den.* Tomo edo liburki bakoitzak izango du gutxi gora-behera Corominas nahiz Corominas-Pascuel-en tankera. Bakoitzak 1.000-ren bat orrialde dituela, lehenbizikoak, aurten agertuko den bakoitzak, beharko ditu izan gainera sarrerako osagarriak: hitzaurreak, euskaldun eta erdaldunentzat, laburdurak eta gainerakoak. Oraingoa *apain* arte edo, behar bada, aurreraxeago helduko da.

Neurri kontuan ditugu oraingoz kezkarik gehienak. Hiztegiaren formatua bera arian arian sortua izan da. Tomo bakoitzaren tamaina begiz joa eduki arren, ezin jakin zenbat izango diren. 8/10 agian, urtean bana bukatzen eta agertzen dela.

*Norentzat den eta zertarako.* Inoiz ez dio erakutsiko, hau da lehen puntua, euskal hitzen arteko aukerak nola egin. Hori zuzenean erakusteko asmorik ez badu ere, ordea, eskainiko ditu hautabiderako oinarriak.

Hitza, noski, eta hau da lehenbiziko eginkizuna, nola ebaki den eta nola ebakitzen, han edo hemen: hori neur daitekeen neurrian, behintzat. Hitzaren forma zein den. Zein esanahi dituen berezkoak eta, hau hau gogoan hartzekoa da, zein testu-ingurutan erabil daitekeen.

Esan bezala, noizkoak eta nongoak diren ere azaldu behar da, zertzelada horiek azal daitezkeen neurrian. Horrela, guttienez, noiz agertzen den hitza, zaharkitua ote dagoen, galbidean hasia edo heldua. Nongoa den mugatzeko, Azkuek baino eremu zabalagoak hartzen ditugu ohituraz, beti noski Azkueren pasarte gogorazten dugula, Azkuerenak eta besterenak, argitasun bila dabilenak argitasuna aurki dezan.

Esana dago, berariaz esan ez bada ere, hizkuntza idatzia astiroago aztertu dugula ahozkoa baino. Nora ezean gertatu da, lehengo eta baita oraingo kasu askotan, beste biderik ez genuelako gauzen berri jakiteko. Izkribuetan, ordea, nolanahikoak hartu ditugu, goikoak eta behekoak, landuak eta zabarragoak, astiro idatziak eta gogora etorri bezala paperean utzi zirenak. Maila kontua, literatur hizkeran izan duten harrera edo arbuioa, aski argi gelditzen da, artikulua bakoitza arretaz irakurtzen baldin bada. Geure oharrak ere sartzen ditugu, lagungarri izan ditezen, eta horrexegatik ez dira ugari, ez baitugu uste gure zentzua besterena baino sendoagoa eta fidagarriagoa denik nahi eta ez.

*Zenbait osagarri.* Leku eta pertsona izenetan ageri diren lekukotasunak ez ditugu baztertu, kontuz jaso baditugu ere. Ez baitira, jakina denez, adieraren aldetik erren direnez gero, hitzen lekuko diren aldetik hitzak erabil daitezkeen bezalako lasaitasunez erabiltzekoak.

Etimologia ere agertzen da zenbaitetan, bide errazetik lor daitekeen. Nolanahi ere, ez dugu burrukarik nahi hori dela medio, eta sesio-bidetik ihesi ibili gara beti. Jakina da, halaz guztiz, usteen eskualdean mugitu behar dela horrelakoetan, nahiz eta laburbeharrez erabiltzen den hizkera arrazoiak eskatuko lukeen baino baikorragoa izan. Hori ez da, ordea, guk sortu dugun usarioa, edozeinek erabiltzen duena baizik. Aski du bada irakurleak kanpoan gelditu diren *agian*, *behar bada* eta antzekoak sartzea premiazko den lekuetan.